



Andoni Mujika

◆ IRAKASLEA

Mozorroaren mozorroa

ARTIKULUAN ukitzen dudan gaiak, aitortu behar dut, hari ugari duela eta nire iritzia ez dela aditu batena. Agertzeaz jardun nahi dut, pertsonok agertzeko dugun beharraz. Hasteko, uste dut, naturala den jokabidea dela. Tamainan, gure “egoa” eta ziurtasun beharra elikatzen ditu. Barne munduarentzat erreparatzailea den errekonozimendu pertsonalaren orbitan koka daiteke. Neronek ere, beste batzuen artean, motibazio hori senti dezaket, esate baterako, ARGIAN artikulua hau idazterakoan. Jakina, irakurlearen aldetik jasotzen ditudan inputak positiboak badira behintzat. Baina agertzeko beharizanaren eskala zabala da. Mutur batean egongo litzateke pertsona orok sentitzen duen premia “natural” hori, eta beste muturrean, nabarmenkeria agertuko litzaziguke; hau da, bere burua nabarmendu ezik hil egiten den pertsona-mota horren kasua, bai, hil. Bigarren aitorpena: amorrua sentitzen dut. Azalduko dizuet.

Nabarmenkeria –neurri barik agertu nahi hori– behar dutenen artean bi azpimultzo ikusten ditut. Lehen azpimultzoan daudenek, ospea, bizi ahal izateko derrigor behar dute, baina ez dute beharizan hori ezkututzen. Premia hori zintzoki bizi dute, eta horrelaxe aurkezten zaizkigu gure aurrean, iruzur barik, *drag queenak* bezala. Hauek ez naute deus molestatzen, kontrakoa esango nuke. *Paboerrealak* dira, baina horrela jokatzeko dute disimulatu barik. Bigarren kategoriako exhibizionistek molestatzen naute, mozorrotuta dabilzan beste nabarmenkeria-

ren *yonkiek*. Kanpo-lotsa eta haserrea eragiten didate umiltasun faltsuarekin distira publikoa biziki desio duten beste hauek. Moralki ez dute egoki ikusten nabarmenkeria, baina nahi ala ez, horixe behar dute, arnasa hartzea beste. Itxura xumez eta umiltasun faltsuz agertzen dira, baina abilezia sofistikatu eta oso landuak dituzte eraztun sozial ezberdinetan eskalatzeko eta posizioak irabazteko. Ez da arraroa izaten, gainera, han eta hemen (kulturan, gizarte mugimenduetan, hezkuntzan, politikan, kooperatibetan...) erreferente bihurtzea. Izan ere, onartu behar da, trebetasun batzuk oso garaturik dituztela.

Bigarren kategoriako exhibizionistek molestatzen naute, mozorrotuta dabilzan beste nabarmenkeriaren yonkiek. Kanpo-lotsa eta haserrea eragiten didate umiltasun faltsuarekin distira publikoa biziki desio duten beste hauek

Dena den, nagusiki, maletinik gabeko beren buruaren saltzailak dira; horixe dira batez ere. Ez zaie antzematen, ordea. Hortxe dago artea. Eta ondorio modura zerbait esaten ausartuko naiz: zenbat eta hutsago eduki barne txalo kopurua, uste dut, orduan eta gose handiagoa dagoela kanpoko txaloekiko. Kontuz. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Fagor itolarrian



DANI BLANCO

Aitor Sarriegi



Doinua: Esne saltzailearena.

Fagorretik eman da berriaren parte geroa zail duela krisia bitarte. Urrutiko ahotsak aspaldi dakarte hemen ere ikusten genuen aparte etxeko sukaldera iritsi den arte.

Aspalditik zetorren usain txar samarra eta baieztatu da zitekeen bakarra. Erabaki okerrak ta hazi beharra... Noiz pasatu ote zen zentzuaren marra? Krisiak soilik ez du isildu oilarra.

Orain hartzekodunen aurre-lehiaketa ta bi mila langile zalantzas beteta. Behin izandakoari jarriarik arreta ea ematen zaion tortilari buelta guztiontzat hobea izango da eta. ■

